

Larraitz

Euskaldunon Egunkaria, 1993-01-19: 2.

Zeru urdin argiaz inguratuta ageri zen Txindokiren itzalpean egin zitzaion bisita larunbat arratsaldean Larraizko magal ederrari: Joxemi Zumalaberen oroitarria, bere emazte eta haurrak, arreba berearekin, txalaparta hunkigarria, txistu zintzoa, bertsolari fina, abesbatza sakona, begirunezko aurreku dantza eta lore eta kolore denetako lagun asko eta askoz inguratua. Denak bere gogoz, diruak erosten ez dituen kontzientziak eraginda, Joxemiri azken agurra egitera etorriak. Ez zuen gutxiago merezi, baina badakigu merezimenduak nola neurritzen diren askotan, eta egiazko izateak ez du, esker oneko Garbiñek eta Josu bere lagun hurkoak esan zioten bezala preziorik. Prezio gabeko ekintza honetan izan zen besterik, gainera. Txindokiren altzoko lur gozoan huts txiki bat egin eta berton, oraindik beteago egon zedin, urkia landatu zioten EGUNKARIaren lehen alearekin, sustraitxoek bere hizkuntzan zer irakurri izan zezaten, eta garbitasun osoan, plastiko hil iraunkorraz inguratu gabe, bestalde, lurrean patxara osoan desegin zedin, ez usteldu, hazia bezala ernetu zezaten, Joxemiren errautsen izpirituarekin. Hau ez da han ikusi eta sentitu genuen dena, baina adierazten zailak direnak ezin dira batzutan esan. Hemen esan gabe geratu diren hitzekin batera jaso dezatela Ostaizka, emazteak, Maddi eta Jon aingeruek eta Koro arreba bakarrak, falta den guztia. Halaxe.